



Arartekoaren ebazpena, 2011ko uztailaren 21ekoa. Horren bidez, Errigoitiko Malluki industriaguneko lurzorua garatzeko egindako administrazio-jarduerei buruzko bitartekotza amaitzen da.

Aurrekariak

- 1- XXXXX plataformak erakunde honetara jo du Errigoitiko Malluki sektorean industriagune bat eraikitzeko proiektuarekin bat ez datozela jakinarazteko asmoz.

Igorritako idazkian zalantzan jartzen ditu Errigoitiko Udalak sektore horretako hirigintzako garapena egiteko eta industrialdera sartzeko balio duen BI-2121 errepidea egokitzeko lanak egiteko gauzatu dituen jarduerak. Aipatutako eremuan biomasa instalazio bat jartzeko proiektuarekin ere ados ez dagoela adierazten du.

- Proiektuokin ados ez egoteko arrazoietakoa bat industrialdearen kokapena da, izan ere, eremu hartan ingurumena sentikorra da Butroe ibaiaren adarra den ubide bat igarotzen baita bertatik. Ubide hori bisoi europarraren habitataren zati da, eta espezie hori galzorian dago. Hori dela eta, esku hartu behar izan dute bai URA Uraren Euskal Agentziak, hura baita jabari hidrauliko publikoko lanak baimentzeko organo eskuduna, eta baita Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak ere, hura baita bisoi europarra kudeatzeko planaren organo eskuduna (<http://alturl.com/k2gd7>).
- Bestalde, sektore hori garatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak 91/2007 Foru Agindu bidez onetsitako (<http://alturl.com/ybeim>) Malluki jarduera ekonomikoetako sektorearen Plan Partziala bideratu du Errigoitiko Udalak (<http://alturl.com/t69ru>). Plataformak azaldu duenez, plan partzialean ez da ingurumenari buruzko legediaren xedapenek eskatzen duten ingurumen-ebaluaziorik egiten. Adierazi du, gainera, hizpide dugun sektorerako aurreikusitako erabileren artean ez dagoela erabilera industrial, baina horixe dela basoko biomasa instalazioak eskatzen duena.
- Plataformaren kexan hirigintzako beste gai batzuk ere jasotzen dira: Errigoitiren mugakide den Arrieta herriarena omen den lur-zati bat sartu dela



sektorean eta bertara iristeko bidean, eta jabe bakarreko birzatiketa-proiektua bideratu dela sektoreko lurak jabe bat baino gehiagorenak izan arren.

- Industriagunearen urbanizazio-lanei dagokienez, Plataformak azpimarratu egiten du bideratzen ari den urbanizazio-proiektuak kalte handia eragingo diola ingurumenari, izan ere, proiektuak 264 metroko luzera duen Malluki erreka ibilgua aldatzea aurreikusten du eta horrek eragin handia izango luke bisoi europarraren habitata den eremu hartako ingurumenarengan,

Idazkietan adierazitakoaren arabera, urbanizazio-lanak hasi dira industrialdea izango denera sartzeko bideen egokitzapena hasi baita. Errigoitiko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin, BI-2121 errepidea egokitzeko lanak gauzatu ditu, URA agentziaren baimenik lortu barik eta bisoia kudeatzeko planaren eskakizunak bete barik. Horrenbestez, Uraren Euskal Agentziak neurriak hartu behar izan ditu eta lanak geldiarazteko agindua eman du, baina Errigoitiko udalak ez duenez behar bezala bete, zigor-espedientea ireki dio eta legeztatzeke errekerimendua egin behar izan da. Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak ere lanen aurka jardun du eta zigorra ezarri dio udalari lanak bisoi europarraren hazkuntza garaian egitearren.

- Industrialdean egingo omen diren jardueri dagokienez, Plataformak zalantzan jartzen du basoko biomasa instalazioaren proiektua egokia denik, ingurumenarengan duen eragina oraindik ere ebaluazio-fasean baitago eta ingurumen-baimen bateratua lortzeke baitago. Kasu honetan, kexaren mamia zera da, Errigoitiko Udalak ez zuela txostenik egin proiektua Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 12 1.b) artikulua eskatzen duen hirigintzako plangintzarekin bateragarria dela egiaztatzeke (<http://alturl.com/ok4xn>).
- Plataformak azaltzen du, gainera, zailtasunak izan dituela udalak egin dituen izapide ezberdinei buruzko informazioa lortzeko. Urbanizazio-proiektua eta ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa jendaurrean azaltzeko prozesua aipatzen du bereziki, izan ere, zailtasunak izan omen ditu espedienteko zenbait zatiren kopiak lortzeko, baina dirudienez, alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren eman egin diote eskatutakoa.



2. Erreklamazioa bideratzea onartu ondoren, Arartekoak erreklamazioan aipatutako administrazioetara jo du, hau da, Errigoitiko eta Arrietako Udalak, Uraren Euskal Agentzia, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila eta Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Hirigintza Sailak.
- Errigoitiko Udalak Malluki industrialdean eta Olabarri auzoan egindako lanen berri eman digu. Sektoreko Plan Partziala eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin bidea egokitzeko lanak egiteko sinatutako akordioa ere aipatu dizkigu.
 - Arrietako Udalaren ustez, Malluki industrialdea Errigoitiko udal-mugartean dago oso-osorik. BI 2121 errepideko lanei dagokienez, uste du Bizkaiko Foru Aldundiak onetsi zituela. Udalak onartu du BI 2121 errepidearen loturetako batek Arrietako udal-mugarteko zati bat hartzen duela, 250 m² alegia. Bidea zabaltzeko behar izan zen lurra Bizkaiko Foru Aldundiak desjabetu zuen. Bidea igarotzen den lurzorua lurzoru urbanizaezinetik igarotzen den bide-sistema orokorra zen lehen ere.
 - Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak Errigoitiko Udala zigortu zuen BI 2121 errepidea zabaltzeko lanak Butroe ibaiko zortasun-gunean egitearren, bisoi europarrarentzako interes bereziko eremua baita. Mallukiko urbanizazio-proiektuari dagokionez, administrazio horrek industrialdearen ondorioz bisoi europarraren espezieak jasan ditzakeen kalteei buruzko txostena egin du.
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraio eta Hirigintza Sailak Malluki industrialdeko sektorearen Plan Partzialak ingurumenarengan izan dezakeen eraginaren ebaluazioari buruzko txostena helarazi digu. Txosten horrek jasotzen duenez, plan partzialak ez dira ingurumena ebaluatzeko tramitean sartu, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren arabera (<http://bit.ly/kV7B3O>). Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2009ko maiatzaren 14ko epaia aipatzen du; horren bidez plan partziala baliogabetu egin zen ez zelako ingurumen-ebaluaziorik egin nahiz eta antolamenduak ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzea eska dezaketen jarduerak barne har ditzakeen industrialdea garatzea aurreikusten zuen. Kasu honetan, Malluki industrialdean manufaktura-jarduerak bakarrik daude baimenduta. Hala ere, aldundiko sail horren arabera, ingurumenarengan eragin handiagoa izan dezakeen edozein erabilera-aldaketa eginez gero, *“dagokion ebaluazio estrategikoa egin beharko da, eta hala jakinarazi zaio Errigoitiko Udalari”*.



- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Malluki industrialdeko urbanizazio-proiektuan ingurumenaren gaia nola bideratu den jakinarazi digu. Txostena eman zenean, Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Azterlana osatzeko edukia eta norainokoa xedatuko zituen txostena egiten ari zen ingurumen-organoa.
- URA Uraren Euskal Agentziak, aldiz, BI 2121 errepedearen egokitzapen-lanei buruzko informazioa bidali digu. Errigoitiko Udalak 2010eko maiatzean hasi zituen lanok, arroko administrazioaren baimen egokirik barik egin ere, nahiz eta baimen hori derrigorrezkoa izan lanek Butroe ibaiaren eskumako ertzeko garbitasun- eta zortasun-guneari eragiten diotelako. Agentziak jakinarazi digunez, lanak geldiarazteko agindua eman zuen 2010eko ekainaren 3an, baina Errigoitiko Udalak ez zituen eten eta aurrera egin zuen lanak bukatu arte, beti ere bideratze-prozesuan zegoen URA erakundearen baimena lortu gabe. Horrenbestez, agentziak zigortzeko espediente bat hasi zuen eta lanak geldiarazteko kautela-neurriak sustatu zituen, baina neurriok ez ziren gauzatu poliziak ez zuelako laguntzarik eman.

Malluki industrialdearen urbanizazio-lanei dagokienez, aldiz, jakinarazi digu 2008ko ekainaren 23ko ebazpenaren bidez onartu zirela. Arro-erakunde horren arabera, espedientea geldiarazita dago urbanizazio-proiektuaren ingurumenari buruzko derrigorrezko tramitea amaitu arte.

Erakunde honek baimenik gabe egindako lanak eteteari buruzko elkarrizketak izan ditu Uraren Euskal Agentziako ordezkariekin; esan beharra dago amaituta daudenez orain legeztatze-prozesuan daudela. Errigoitiko Udalarekin ere izan ditu elkarrizketak, bai Malluki industrialdeko urbanizazio-proiektuaren informazio publikoaren tramiteei buruz, baita proiektuak ingurumenarengan izango duen eraginaren ebaluazioaren azterlanari buruz ere.

Informazio hori eta aurkeztutako gainerako inguruabarrak kontuan hartu eta horien edukiak aztertu ondoren, honako gogoetak helarazi nahi dizkizut:



Oharrak

1. Ebazpen honen helburua Errigoitiko Malluki industrialdea antolatzeke eta garatzeko egindako jarduera ezberdinak aztertzea da; aurrekarietan argitu den legez, hainbat administraziok hartu dute parte jarduera horietan.

Lehenik eta behin baloratu beharrekoa zera da, beharrezkoa ote den ingurumenaren ebaluazio estrategikoa egitea industrialde honetako antolamendu xehakatua Plan Partzialean onartu aurretik.

Bestalde, sektore horretako hirigintzaren garapenari buruzko gaiak aztertuko ditugu. Aipatu da jabe ezberdinenak diren eta Arrietako udal-mugartean dauden lur-zatiak ere sartu direla jabe bakarreko birzaketan. Urbanizazio-lanei dagokienez, aztertu egingo ditugu ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluazioa egiteko eta aroko erakundearen baimena lortzeko jarraitutako prozedurak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren nekazaritza sailaren txostena. Ebaluazio eta administrazio-kontrol horren barruan sartu beharko lirateke aurreikusitako urbanizazio-lan guztiak, hala nola, BI 2121 errepidea egokitzeko lanen proiektuaren baitan Malluki errekaen ibilguaren ibilbidea aldatzea eta industrialdera sartzeko lanak egitea.

Ebaluatu beharreko beste kontu bat biomasa instalazioaren proiektua eta ingurumenaren gaineko baimenak lortzeko jarraitutako administrazio-izapideak izango dira.

Azkenik, aintzat hartuko ditugu Plataformak hirigintzari eta ingurumenari buruzko informazioa lortzeko izan omen dituen zailtasunak.

2. Erakunde honek hainbat aldiz azpimarratu du ingurumenarengan eragin esanguratsuak dituzten antolamendu xehakatuko planenen ingurumen-ebaluazioa egitea beharrezkoa dela.

Plan eta programa jakin batzuen ondorioen ebaluazioari buruzko 2001eko ekainaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/42/CE Zuzentaraua eta Plan eta Programa jakin batzuek Ingurumenean dituzten Ondorioen Ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko Estatuko 9/2006 Legea ditu jatorri ingurumen-ebaluazio estrategikoaren eskakizunak.



Legedia horren barruan, beti ere Batasuneko zuzenbidearen aplikagarritasun zuzenaren eta eraginkortasun zuzenaren printzipioei jarraiki, sartu eta moldatu behar dira euskal legedian jasotako aurreikuspenak, hala nola, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legea (3/1998 Legea) eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea (2/2006 Legea).

Batasuneko ingurumenari buruzko araudia kontuan hartuta, Arartekoak defendatu izan du plan partzialetan ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar dela baldin eta ingurumenari buruzko legediari jarraiki ingurumen arloan eskumena duen administrazioak egiaztatu egiten badu ondorio esanguratsuak eragingo zaizkiola ingurumenari.

Arauaren arabera, bi kasutan eragiten zaizkio beti ondorio esanguratsuak ingurumenari: etorkizunean ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egin behar zaien proiektuen baimena lortzeko esparrua ezartzen duten planen kasuan eta Natura 2000 Sarea arautzen duen araudiaren araberako ebaluazioa eskatzen duten proiektuen kasuan (Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45. artikulua).

Etorkizunean Ingurumen-ebaluazio Estrategikoa egin behar zaien proiektuen baimena lortzeko esparrua ezarriko duten planak zehaztu ahal izateko, ezinbestekoa da indarrean dagoen Proiektuen Ingurumen Eraginaren Ebaluazioari buruzko Legearen eta 3/1998 Legearen testu bateratua onesten duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua aipatzea.

Kasu honetan esan beharra dago industrialde honen antolakuntzan aurreikusitako urbanizazio-lanek ingurumenaren gaineko ondorioen ebaluazioa eskatu dutela eta une honetan bideratzen ari direla.

Horrenbestez, ondoriozta dezakegu ingurumen arloko administrazio eskudunak, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailak kontuan hartu behar izango zukeela plan partzial honi ingurumen-ebaluazio estrategikoa eskatzeko aukera. Nolanahi ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Sailak onartzen duenez, plan partziala aldatu egiten bada ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko eskatzen duten industria-erabilerak baimentzeko, orduan bai eskatu beharko da ingurumenaren gaineko ebaluazioa egiteko. Gauzak horrela, Errigoitiko Udalak biomasa instalazioa ezartzeko onartu duen



hirigintzako hitzarmenetik ondorioztatzen denez, kasu honetan plan partzialaren araudia aldatzeko eska daiteke.

3. Industrialdearen kudeaketari dagokionez, hiru gai ezberdin planteatu dira: Malluki sektorea birzaitzea, BI 2121 errepidearen egokitzapen-lanetarako proiektua eta sektoreko urbanizazio-proiektua.

- Sektorea kudeatzeko onartutako urbanizatzeko jarduera programak (UJP) erakusten du jarduketa-sistema hitzarmenaren bidezkoa dela, hau da, industrialdeko urbanizazio-lanak jabeek eurek egiten dituztela (<http://alturl.com/bezzm>). Urbanizazio-lanek barne hartzen dituzte 65.563 m²ko Malluki sektorearen urbanizazioa eta sektoreari atxikitako 6.418 m²ko bide-sistema orokorraren urbanizazioa; azken hori lortzeko desjabetze-sistema erabili beharko da.

Udalak jabe bakarreko birzaitiketa proiektua bideratu du Malluki sektorea esparrutzat hartuta (<http://alturl.com/hxj78>).

Plataformak zalantzan jartzen du jabari bakarra, bere ustez sektoreari atxikitako bide-sistema orokorreko lursailean dagoen lur-zati bat (8 industrialdeko 16 lur-zatia) gehiengoa daukan jabea ez den beste norbaitena delako eta, gainera, lur hori Arrietako udal-mugardean legoke.

Bide-sistema orokorra lortzeko lurzorua esleituz gero, lurra lagapen bidez eskura daiteke burutzapen-unitatean sartuz gero, edo desjabetze bidez bestela.

Plan Partzialean bideko komunikazio-sistema orokor bat sartu dute Malluki industrialdeko sarrera barne hartzeko (Arau Subsidiarioetan aurreikusitako moduan), eta kudeaketarako Malluki sektoreari atxiki diote. Atxikipena dela eta, BI 2121 errepidean sektorerako behar bezalako sarbidea egiteko aldaketaren kostuak sektoreko jabeek hartu beharko dituzte beren gain. Hala ere, kasu honetan UJPk ezartzen du tokiko sistema hori desjabetze bidez lortuko dela.

Aipatutako lur-zati pribatua bide-sistema orokorrean sartzeak ez luke ondoriorik eragingo Malluki sektorearen jabe bakarreko birzaitiketan, bere mugetatik kanpo baitago. Antolamenduan erabaki da derrigorrezko desjabetze



bidez lortuko dela. Nolanahi ere, udalak okupazioa gauzatu aurretik lortu beharko luke lur-zatiaren jabetza, hirigintzari eta nahitaezko desjabetzeari buruzko legedian aurreikusitako araei jarraiki.

- Arrietako udal-mugaratean omen dagoen lur-zatiari dagokionez, zera azaldu behar da:

Hizpide dugun kasuan, Errigoitiko Arau Subsidiarioek eta Malluki sektoreko Plan partzialak bide-sistema orokor baten mugaketa hartzen dute barne, eta bide horren zati bat Arrietako udal-mugaratean dago.

Arrietako Udalak, zerbitzu teknikoen txosten bidez, aitortu du BI 2121 errepidea egokitzeko lanak bere udal-mugaratean egin direla. Hala ere, defendatzen du egindako lan horiek ez diotela Arrietako hirigintzako antolamenduari eragiten.

Gai hori 2/2006 Legearen 92. artikulua jasotzen du: *“Hirigintzako antolamenduko planak udalerrri bateko lurzorua baino gehiago hartzen duenean, eragindako toki-entitateetako bakar batek egin ditzake formulazioa eta izapideak, hala badagokio, udal guztien artean iritsitako akordioaren arabera”.*

Errigoitiko hirigintzako antolamenduak bere mugartea gainditu eta Arrietako lurri eragiten dienez, bi udalek hitzarmen bat egin beharko lukete beren-beregi gai hori adosteko.

Arrietako Udalak aipatzen du hitzarmen bat egin zuela Errigoitiko Udalarekin 2001eko apirilean, eta bertan adostu zutela Malluki industrialdea garatzeko eta eraikitzeko kudeaketak bigarren Udalari eskuordetuko zitzaizkiola.

Hala ere, hitzarmenean ez da aipatzen Arrietako lurrik sartuko denik Malluki industrialdean ez bertara atxikitako bide-sistema orokorrean. Administrazioen artean eskumenen eskuordetzea hitzartu ahal izateko kontuan hartu behar da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13. artikuluan xedatutako prozedura. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 27. artikulua xedatzen duenez, eskumenak eskuordetu ahal izateko horien norainokoa, edukia, baldintzak eta eskuordetzen duen administrazioak nahi



duen kontrolaren iraupena zehazten dituen akordioa lortu behar da. Eskuordetzea indarrean sartu ahal izateko, interesdun udalerriko organo eskudunak onartu egin behar du.

Udal batek beste udalerrri bateko lurraldeari eragiten dion hirigintzako antolakuntza eta kudeaketa xedatzen baditu, ezinbestekoa izango da hirigintzako jarduera horretarako behar diren eskumenak beren-beregi eskuordetuko dizkion akordioa lortzea.

Urbanizaio-lanen burutzapenari dagokionez, esan beharra dago bi fase ezberdinetan sartu direla. Alde batetik, Errigoitiko Udala Malluki sektoreko urbanizazio-proiektua bideratzen ari da. Bestetik, Malluki sektoreari atxikitako bide-sistamarako aurreikusitako lanen zati bat eginda dago, Errigoitiko Udalak BI 2121 errepidea 25,1 eta 25,6 KMen artean egokitzeko egindako lanen proiektuaren baitan sartu baitu.

Kontuan hartu behar dugu industrialdea prestatzeko urbanizazio-lanek industrialdeko azalerari ez-ezik BI 2121 errepidea bide-sistemarekin lotzeko eta sarbidetzat erabiltzeko aurreikusitako aldaketei ere eragiten dietela. Plan Partzialaren barruan sartzen dira bai atxikitako sistema orokorraren mugaketa, bai urbanizazio-kostua.

Errigoitiko Udalak egokitzat jo du bide-sistemako lanak errepidea egokitzeko lanekin batera egitea eta, bestalde, sektorearen sustatzailea izango da urbanizazio-proiektuko lanak egiteko arduraduna.

Gauzak horrela, sektoreko urbanizazio-lanak bi fasetan egiteak ez du esan nahi hizpide dugun proiektuak ingurumenean eragin ditzakeen ondorioak ebaluatu behar ez direnik edo proiektuarengan beste administrazio batzuek (URA edo Aldundiko nekazaritza saila) duten kontrola bertan behera geratzen denik. Ingurumenaren ebaluazioari buruzko araudiari jarraiki, ingurumenaren eskuduna den administrazioak proiektuaren tamaina eta beste proiektu batzuekin pilatzen den hartu beharko du kontuan urbanizazio-lanak aztertzerakoan.

Era berean, kontuan hartu behar da ezinbestekoa dela lanak hasi aurretik ingurumenaren gainean eragiten den ondorioa ebaluatzea eta sektorekako baimen egokiak izatea.



Aparteko aipamena merezi dute dagoeneko eginda dauden urbanizazio-lanak. Aurrekarietan frogatu dugun legez, Errigoitiko Udalak 2010eko maiatzean hasi zituen bide-sistemako urbanizazio-lanak, eta Butroe ibaiaren ertzetako hainbat punturi eragin arren, arroko administrazioaren baimenik gabe egin zuen. Lan horien ondorioz, URA Uraren Euskal Agentziak zigortzeko espedientea hasi zuen 2010eko maiatzaren 26an lanak geldiarazteko behin-behineko neurri gisa.

Errigoitiko Udalak ez zuen bete geldiarazte-agindu hori ez zegoelako ados aginduaren edukiarekin eta URAREN erabakia betearazteko hartutako neurriekin.

Agentziak, lanak geldiarazteko eskatu arren, ezin izan du neurria betearazterik lortu. Errigoitiko Udalak, geldiarazte-aginduaren kontrako alegazioak aurkeztu ondoren, lanen proiektua, azterlan hidraulikoa eta uholde-arriskuari buruzko azterlana aurkeztu ditu. Hala ere, proiektua sustatu duen udalak aurrera egin du lanak amaitu dituen arte.

Gogorarazi behar dugu administrazio publikoen jarduera guztiek derrigorrez bete behar dutela ordenamendu juridikoa, egoera edozein dela ere. Errigoitiko Udalak bete egin behar ditu urari buruzko legedian aurreikusitako aginduak, besteak beste, eremu publikoan eta haren garbitasun-gunean lanak egiteko arroko erakundearen nahitaezko baimena. Halaber, Errigoitiko Udalak ezin dio URA agentziak emandako geldiarazte-aginduari entzungor egin hura administrazio-bidean irmo bilakatu ondoren.

Bestalde, emandako administrazio-agindua bete ez izanari dagokionez, esan beharra dago agindua eman duen administrazioak duela hura betearazteko erantzukizuna, Uraren Euskal Agentziak kasu honetan. 30/1992 Legearen 94. artikulua xedatzen du administrazio-egintza irmoak berehala burutu behar direla. Arauak berak ezartzen ditu aginduak nahitaez betearazteko administrazioak bere esku dituen mekanismoak. Neurrian artean, Urari buruzko Legearen 119. artikulua xedatzen du *"posible dela jarduera arau-hausleak aurrera egitea ekiditeko kautela-neurriak hartzea, hala nola, instalazioak, aparatuak, ekipoak eta putzuak zigilatzea eta jarduerak etenaraztea"*.



Gauzak horrela, diziplina hidraulikoaren ahalmenak betez, ibaizainek (poliziaren laguntzaz baldin eta herritarren segurtasuna arriskuan egon badaiteke) egikaritu egin beharko dituzte hartutako kautela-neurriak: jabari publikoko eremuak eta uren garbitasun-guneak zigilatzea, zein tokian dauden aparatuak eta ekipoak ibilgetzea.

Bestalde, une honetan abian da Malluki sektorea urbanizatzeko proiektuaren tramitazioa, eta bertan aurreikusita dago ingurumen arloan eskumena duen administrazioak ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzea.

Plataformak jakinarazi digu proiektua eta ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlana jendaurrean azaltzeko epean zailtasunak izan zirela espedienteetako dokumentuen kopia lortzeko. Udaleko idazkariak, aldiz, jakinarazi digu neurriak hartu direla kontu hori konpontzeko: espedientea kopia egiten dituen enpresa batera igorri da eskatutako kopia eman ahal izateko.

Azpimarratu behar da proiektua jendaurrean azaltzea oso garrantzitsua dela eta epe horretan interesdunek espediente osoa kontsultatzeko aukera izan behar dutela eta nahi dituzten kopia eskuratzeko eskubidea dutela. Informazioa eskuratzeko eskubide hori prozedurari eta ingurumenari buruzko informazioaren eskuragarritasunari buruzko legeetan xedatutako zergatien ondorioz bakarrik muga daiteke. Agiri horien kontsulta errazte aldera, administrazioek toki bat prestatu beharko dute interesdunek udal-zereginak oztopatu gabe eta gutxieneko erosotasunarekin kontsulta-eskubidea erabili ahal izateko. Horrek ez du esan nahi espediente publikoen zaintza bermatzeko eta kaltetu litezkeen besteren eskubideak babesteko neurririk hartu ezin denik.

Bestalde, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 6. artikulua xedatzen duenari jarraiki, administrazioek espediente elektronikoa eskuratzeko aukera ematen duten baliabide elektronikoak eduki behar dituzte. Formatu hori erabiltzeak espediente digitaletako agiriak modu erosoan, berehala eta dohainik kontsultatzea ahalbidetu behar du.

- . Azkenik, biomasa instalazioaren ingurumen-baimen bateratua lortzeko tramitea aztertu behar dugu. Ebazpen hau eman dugunean, Eusko



Jaurlaritzako Ingurumen Sailak jakinarazi digu oraindik ere tramitatzen ari direla proiektuaren ingurumen-baimena eta ingurumenaren gainean duen eraginari buruzko adierazpena.

Instalazioa dagoen tokiko udalak gehienez hogeita hamar eguneko epean proiektua eta hirigintzako plangintza bateragarriak direla ziurtatzeko txostena emateko prozedura ezartzen du kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak.

Eusko Jaurlaritzako ingurumen sailak jakinarazi digu xedapenean ezarritakoari jarraiki eskatu egin duela txosten hori. Udalaren txostenik eskuratu ez duenez, Sailak 16/2002 Legearen 15. artikuluan xedatutako baldintzetan jarraitu du espedientearen tramitea.

Lehen ere esan dugunez, administrazio publikoek ordenamendu juridikoa bete behar dute. 30/1992 Legeak xedatzen du bere eskumenekoak diren jarduerak ofizioz bultzatzearen printzipioa eta erakundeen arteko lankidetzaren printzipioa betez jardun behar dela. Legez ezarritako epeen barruan txostenik ez bidaltzeak administrazioak gaizki funtzionatzen duela adieraz dezake, eta hori albait arinen konpondu behar da.

Horregatik gogorarazi behar dugu Errigoitiko Udalak nahitaez bidali behar duela proiektua eta hirigintzako planeamendua bateragarriak direla egiaztatzen duen txostena.

Kexan azaldutako datuak, administrazio eskudunek igorritako informazioa eta egin ditugun gogoetak kontuan hartuta, honako ondorioak atera ditugu:

Ondorioak

Arartekoaren erakundeak uste du ingurumenaren gaineko ebaluazio estrategikoa kontuan hartu behar dela plan partzialak bideratzerakoan, baldin eta egiaztatu bada ingurumenarengan eragin esanguratsuak izango dituela.

Malluki sektoreko plan partzialari dagokionez, industrialdeko antolamenduak ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko eskatzen duten urbanizazio-lanak



egitea aurreikusten du. Horrenbestez, izapide hori eskatu behar den eta ingurumenarengan ondorio esanguratsuak izango dituen baloratu beharko zukeen ingurumenaren eskuduna den organoak.

Nolanahi ere, ingurumenaren ebaluazioa exijitu daiteke Plan partziala aldatu eta ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa eskatzen duten industria-erabilerak baimentzea nahi izanez gero.

Errigoitiko hirigintzako antolamenduak bere mugartea gainditu eta Arrietako lurrei eragiten dienez, bi udalek hitzarmen bat egin beharko lukete beren-beregi hirigintzako jarduera horretarako eskumenak eskuordetzea adosteko.

Sektorearen hirigintzako kudeaketari dagokionez, esan beharra dago lur-zati pribatu bat bide-sistema orokorrean sartzeak ez lukeela ondoriorik eragingo Malluki sektorearen jabe bakarreko birzatiketan, bere mugetatik kanpo baitago. Antolamenduan erabaki da derrigorrezko desjabetze bidez lortuko dela. Nolanahi ere, Errigoitiko Udalak okupazioa gauzatu aurretik lortu beharko luke lur-zatiaren jabetza, hirigintzari eta nahitaezko desjabetzeari buruzko legedian aurreikusitako arauak jarraiki.

Sektoreko urbanizazio-lanen burutzapenari dagokionez, horiek bi fasetan egiteak ez du esan nahi hizpide dugun proiektuak ingurumenean eragin ditzakeen ondorioak ebaluatu behar ez direnik edo proiektuarengan beste administrazio batzuek (URA edo Aldundiko nekazaritza saila) duten kontrola bertan behera geratzen denik.

Era berean, kontuan hartu behar da ezinbestekoa dela lanak hasi aurretik ingurumenaren gainean eragiten den ondorioa ebaluatzea eta sektorekako baimenak izatea.

Bestaldean, Errigoitiko Udalak ezin dio entzungor egin URA Uraren Euskal Agentziak emandako geldiarazte-aginduari. Nolanahi ere, agindua betearazteko erantzukizuna URArena da, hura baita ebazpena eman duen administrazioa.

Azpimarratu behar da, baita ere, proiektua bera eta urbanizazio-proiektuak ingurumenarengan izan dezakeen eraginari buruzko azterlana jendaurrean azaltzeko epea indarrean den bitartean, interesdunek espediente oso-osoak kontsultatzeko eta kopiak lortzeko aukera izan behar dutela. Bestalde,



administrazioek espediente elektronikoa eskuragarri izateko baliabide elektronikoak eduki behar dituzte.

Azkenik, biomasa instalazioaren ingurumen-baimen bateratua lortzeko egindako tramiteari dagokionez, gogorarazi behar dugu Errigoitiko Udalak nahitaez igorri behar diola Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari proiektua eta hirigintzako plangintza bateragarriak direla egiaztatzen duen txostena.

